

➤ **Ulermena sakondu: Orreagako gudua**

- Garai hartako pertsonaia historikoak
- Orreagako gudua filmean
- Etxahun Aukerena Historia irakaslearen azalpena
- Orreaga kantua – Benito Lertxundi
- Gartxot filmarekin lotura


➤ **Urrunago joateko : Testuinguruan kokatzeko**

- Baskoniatik Nafarroarat : Iruneko Erresuma (bideoa)

- **Filma ikusi eta gero...**
- Garai hartako pertsonaia historikoak:
 - Eneko Aritza eta bere aita
 - Karlomano
 - Erroldan, Karlos Handiaren iloba



Eneko Aritza bere aitarekin



Eneko Aritza Baskoien lehen erregea

➤ Baskoniatik Nafarroarat: Eneko Aritza

Eneko Aritza


Eneko Aritza noiz sortu zen ez dakigu baina 852 irian hil zela bederen badakigu. Eneko Ximeno edo Iñigo Ximenez izeneko Pirinioetako buruzagi baten semea zen. Aritza izeneko familia IX. eta X. mendeetan izan zen. Aritzaren inguruan sortu zen Iruñeko errege dinastia (824-905), Iñigotarrak izenez ere ezaguna.

824an, Pepin I.a errege frankoak eta bere menpeko jaun euskaldunek armada bidali zuten Iruñera baina gibeleratekoan, Orreaga-Garaziko mendietan, Eneko Aritzak eta bere suhiak frankoen armada garaitu zuten. Eblo (frankoa) eta Aznar Galindez I.a Aragoiko kondea preso hartu zituzten.

Baskoi nobleek Eneko Aritza aitzindari eman eta Iruñeko erresuma sortu zuten 824an. Eneko Aritzak Tuterako Banu Kasi godo-musulmanekin eta Gartzia «Gaiztoa» Aragoiko kondearekin bereziki izan zituen harremanak, halaber Arabako Bela familiarekin. Pentsatzekoa da frankoen menpe bizi ziren Pirinio bestaldeko euskaldunekin ere izan zituela loturak, historialari batzuen arabera hortxe baitzituzten erroak Eneko tarrek.

Garai hartan Iruñea baskoien hiri nagusia zen eta Eneko Aritzak hor kokatu zuen bere egonleku nagusia. Iruñea leku estrategikoa bilakatzearekin batera, frankoen eta musulmanen jomuga ere bihurtu zen.

Arabako lurraldeek etengabe jasaten zituzten Asturias aldeko godoen, Kasio familiaren eta Zaragozako musulmanen erasoak eta Iparraldetik zetozen frankoei aurka ere egin behar zuen Iruñeko buruzagiak.



Erroldan Orreagako gudan



Karlomano

- **Filma ikusi eta gero...**
 - Orreagako gudua filmean



➤ Etxahun Aurkenerena Historia irakaslearen azalpena




Iruña erre zuten frankoek.



Mendekua nahi zuten
euskaldunek.

Tribu desberdinak elkartu ziren.



Euskal leinuak erromatar garaian

Erromatarren garaian eta VII. mendera arte euskaldunak tribuetan antolatzen ziren: barduliarrak, baskoiak, tarbeliarrak...

Orreagako gudua

Iparrera bidean, bortuak **gainditzera**koan, Orreagako inguruan, baskoiek Karlos Handiaren armadari eraso zioten eta sekulan izan ez zuen **porrota** ukan zuen buruzagi frankoak. **Ondasun** handiak eta soldadu ainitz galdu zituen, haien artean Erroldan (Roland) printzea. Euskaldunek **mendekua** hartu zuten Orreagan, frankoen soldaduak garaituta.


Ulermena sakondu:

Orreagako kantua (Benito Lertxundi)



Edo zuzenean Youtuben

Ulermena sakondu: Gartxot filmarekin lotura



***Gartxot, konkista
aitzineko konkista*** 2011.
urtean Juanjo Elordik eta
Asisko Urmenetak eginiko
animaziozko filma da.

Ulermena sakondu: Gartxot filmarekin lotura



➤ Baskoniatik Nafarroarat: Iruñeko Erresuma



➤ Baskoniatik Nafarroarat: Iruñeko Erresuma


Denbora horretan, lehenik, erromatarren erasoak ukan zituzten. Erroma erori eta gero bisigodoen eta frankoen erasoak izan zituzten.

Euskaldunak “Baskoniako dukerrian” antolatu ziren.

814an Karlos Handia hil zelarik Europan erresuma berriak agertu ziren. Iruñeko erresuma adibidez.

Oraingo Ipar Euskal Herriko lurraldeek “Baskoniako konderria” bezala funtzionatu zuten.

Batzuetan independentea, bertzeetan frankoen azpian.



➤ Orreagako gudua: Dokumentuen zerrenda

- Orreagako gudua filmean
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8027>
- Etxahun Aurkenerena historia irakaslearen azalpena
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8026>
- Orreaga kantua – Benito Lertxundi
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8024>
- Gartxot filmarekin lotura
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8023>
- Baskoniatik Nafarroarat : Iruneko Erresuma Euskaldunen historia 10 minututan kontatuta
<http://www.ikas.eus/spip.php?action=telecharger&arg=8033>